


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,7 igo ziren 2005eko urrian

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko urria, 2004ko urriarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %3,9 gehitu ziren

2005eko urrian, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,7 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urriko urte arteko tasa %3,9ra iritsi zen, EUSTATen datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2005



(*)Gehikuntza urriko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2005eko urrian, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %1,0 igo ziren.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera berezituak izan zituzten euren lehengaien kostuetan: Eraikuntzan indizea %1,1 igo zen aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilean %0,6. Baterako emaitza %1,0koa izan zen, Eraikuntza azpisektorea pisutsuagoa delako Obra Zibila baino. Azpisektore bien urte arteko bilakaerek antzeko aldakuntzak izan zituzten: Eraikuntzako lehengaien kostuak %3,6 igo ziren eta Obra zibilekoak %3,8.

Urrian prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiek izan zituzten: *asfalto-produktuak* (%7,2), *burdina eta altzairua* (%5,0), *metalezko hoditeria* (%3,3) eta *beira* (%0,8) lehengaiek. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten, besteak beste, *garbitzeko eta txukuntzeko materiala* (%-3,1), *petroliotik eratorriak* (%-2,0), *energia elektrikoa* (%-0,9) eta *egiturak eta galdaragintza* (%-0,1), lehengaiek.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *asfalto-produktuak* (%31,9), *petroliotik eratorritakoak* (%19,4), *esku-erremintak* (%6,3), *harri elaboratua* (%6,2) eta *lur erreak* (%5,9) lehengaiak. Aitzitik, urteko arteko prezioetan murrizketak izan zituzten *garbitzeko eta txukuntzeko materiala* (%-1,6) eta *egitura metalikoak eta galdaragintza* (%-1,1) lehengaiak.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2005eko URRIA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	120,1	0,7	3,9	4,2	
ERAIKINAK	119,9	0,7	3,9	4,1	
OBRA ZIBILA	120,6	0,4	4,1	4,6	
LEHENGAIEN KOSTUA	117,5	1,0	3,6	4,0	
ERAIKINAK	117,5	1,1	3,6	3,9	
OBRA ZIBILA	117,7	0,6	3,8	4,6	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	126,1	0,0	4,6	4,6	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp